



Ayuntamiento de Ansoáin  
Antsoaingo Udala  
C.I.F./ I.F.K. P3132500D  
Tel.: 948132222  
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1  
Plaza Consistorial, 1  
31013 Nafarroa – Navarra  
[ansoain@ansoain.es](mailto:ansoain@ansoain.es)  
[www.ansoain.es](http://www.ansoain.es)

## 62. ALDIZKARIA - 2018ko martxoaren 28a

### ARAU, UDALAREN MUSIKA ESKOLAKO KURTZOETAN IZENA EMATEKO ETA PARTE HARTZEKO PREZIO PUBLIKOAK EZARTZEN DITUENA

#### ORDENANTZA

Hona hemen ordenantzaren testua:

#### **OINARRIA**

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikuluko baimenaren babesean.

#### **SORTZAPENA**

2. artikulua. Ordaindu beharra kurtsoetan izena ematen den unean berean sortzen da eta hartan parte hartzen dutenek ordaindu beharko dute.

#### **KUDEAKETARAKO ETA DIRU-BILKETARAKO ARAUAK**

3. artikulua. Izena emateko kuota edo matrikula hura formalizatu baino lehen ordaindu beharko da, matrikulatzeko epearen barnean. Udalak bankuetan dituen kontuetako batean dirua sartuz egingo da ordainketa.

Udalak kurtsoa bertan behera uzten duenean baizik ez da bidezko izango matrikularen prezioa itzultzea, edo eskaera egin duten ikasleek eskainitako espezialitateetan ikastokirik eskuratu ez dutenean.

Musika Eskolaren beste aldi batzuetan kuotak ez ordaintzeagatik Antsoaingo Udalarekin zorrak dituzten ikasleek ezingo dute izena eman ezta matrikula egin ere.

4. artikulua. Emandako ikasketa edo saioengatik, tarifetan kurtsoengatik agertzen diren kuotak hiru epe berdinetan igorriko dira: lehen epea irailean; bigarrena, abenduan, eta hirugarrena, martxoan. Horri dagokionez, ordainagirien ordainketa bankuko kontu batean helbideratu behar da; hura zein den matrikula egitean adieraziko dute matrikulatzen direnek.

5. artikulua. Eskolan kurtsoa hasitakoan onartzen diren ikasleek matrikula osoa ordainduko dute, eta irakaskuntzari dagozkion tarifak, berriz, ikasturteari falta zaizkion hilabeteen arabera, izena zer hilabeteetan ematen den, hura barne dela.

Jadanik matrikulaturik egonik beren borondatez Eskola utzi nahi duten ikasleek idatziz eskatu beharko dute, ez baita ahozko eskaerarik onartuko. Eskola uzteak ondorio hauek ekarriko ditu:

- a) Ez zaie inondik ere itzuliko matrikulagatik ordaindutako zenbatekoa.
- b) Uzteko eskaera irailaren 5a baino lehen gertatzen bada, ez da 4. artikuluan aipatu diren epeen kuota bakarra ere ordainduko.
- c) Uzteko eskaera irailaren 5etik eta abenduaren 1a baino lehen gertatzen bada, lehen epea baizik ez da ordainduko 4. artikuluan aipatu direnetarik.
- d) Uzteko eskaera abenduaren 1etik eta martxoaren 1a baino lehen gertatzen bada, lehen eta bigarren epeak baizik ez dira ordainduko 4. artikuluan aipatu direnetarik.
- e) Uzteko eskaera martxoaren 1aren ondoren gertatzen bada, hiru epeak ordaindu beharko dira 4. artikuluan aipatu direnetarik.

6. artikulua. Ikasle berriak eroldaren arabera onartzea. 1. mailarako (Musika Hastapena) Antsoainen erroldatu gabeko ikasleak onartzen ahalko dira, betiere Antsoainen erroldatutako ikasle berriak matrikulatzeko epearen ondoren ikastoki hutsik gelditzen bada.

2. eta 3. mailetarako eta musika ezagutzak dituzten helduendako, hasiera batez, Antsoainen erroldatutako ikasleak soilik onartuko dira. Antsoaingo Musika Eskolan ikasi nahi duten erroldatu gabeek eskaera bat egin behar dute matrikulaziorako ezarritako epean. Ikastetxeak aztertuko du horiek onartzen dituen edo ez instrumentuen espezialitateetan bete gabe dauden postuen arabera, ikasle zaharrei eta erroldatuta dauden ikasle berriei instrumentuen espezialitateak onartu eta esleitu ondoren.

Eskolako gainerako aukerretarako (banda, abesbatza, eskolania eta gitarren taldea) Antsoainen erroldatu gabeko ikasleak onartzen ahal dira, betiere leku hutsak gelditzen badira.

Ordenantza honen ondorioetarako, erroldatuztat hartuko dira matrikula egiteko garaian Antsoaingo Udalaren erregistroan izena emana dutenak, bai eta gurasoak bereiztearen edo dibortziatzearen ondorioz erroldaturik ez daudenak ere, betiere gurasoetako bat erroldaturik badago. Inguruabar hori frogatu egin beharko da.

7. artikulua. Instrumentuen postuen esleipena.

Musika Eskolak ikasturte bakoitzean, ikastegiaren musika beharren arabera, postu kopuru bat ezarriko du dauden instrumentuen espezialitateetan.

Postu horien esleipena honela egingo da:

a) 2. mailako lehen kurtsoan hasten diren ikasleak (MHPI):

1. 1. zozketa: ikastegian Musika Hastapenaren 4. maila bukatu duten eta gutxienez Musika Hastapenaren bi maila Antsoaingo Musika Eskolan egin duten ikasle zaharrak; eta (MHPI) 1. maila egin eta instrumentua aldatu nahi duten ikasleak.

2. 2. zozketa: ikastegian Musika Hastapenaren 4. maila bukatu duten eta Antsoaingo Musika Eskolan soilik maila hori egin duten ikasle zaharrak.

3. Antsoainen erroldatutako ikasle berriak.

4. Antsoainen erroldatu gabeko ikasle berriak.

Ezartzen diren zozketetan parte hartzeko, nahitaez bertaratu behar da ikasle bakoitza edo haren ordezkaria. Bertaratua edo ordezkaturia ez dagoen ikaslea ez da zozketan sartuko eta instrumentu espezialitatea hautatuko du zozketa egin ondotik bete gabe gelditu diren postuen artean.

Ikasle berriendako zozketak egingo dira "postuaren eskabidean" eskatutako espezialitateak bat baldin badatoz.

b) 2. mailako lehen kurtsoetik gorako batean sartzea eskatzen duten ikasleak:

Postuen esleipena kurtso txikienetik gorenera egingo da, bai ikasle berrientzat, bai bigarren tresna ikasi nahi duten ikasle zaharrentzat.

Ikasle horiek mailakatzeko proba gainditu beharko dute, eta onartuko dira ikastegiak postua eskaini ahal badie egin behar dituzten nahitaezko irakasgai guztietarako; arautegi honen "kurtsoak, irakasgaiak eta prestakuntza saioak" izeneko apartatuan azaltzen dira.

### **TARIFEN APLIKAZIOA**

8. artikulua. Ordaindu beharreko tarifak arau honen eranskinean agertzen dira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga beren baitan dute, hala badagokie.

Erroldatuta dagoen ikasle batek errolda beste udalerrira batera aldatzen badu ikasturtean, erroldatu gabeko ikasleentzat ezarritako kuota ordaindu beharko du zuzenean.

Erroldatu gabeko ikasle batek errolda Antsoainera aldatzen badu ikasturtea hasi ondoren, tarifa aldatuko da erroldatuaren kuotara hura erroldatzen den datatik Udalak egiten duen hurrengo ordainketatik, eta arau honetako 4. artikuluan ezarritako hilabeteen arabera.

Ikasleren batek ikasturte batean zehar bere musika prestakuntza eten nahi badu Antsoaingo Eskolan, Nafarroatik kanpo ikasketak dituelako, izena eman eta matrikula egiteagatik dagokion zenbatekoa ordaindu behar du, plazaren erreserba kontzeptupean. Ikasturte bat igarota, ez badu berriz sartzeko eskaera egiten matrikula aldian, ez da hartuko ikasle zahar gisa.

9. artikulua. Arau honen tarifen eranskineko G epigrafean dauden murriztapenei heldu nahi dietenek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

Familia unitateko kideen PFEZaren aitortzea, hura egitera behartuta daudenena, bederen, buruturiko azken zergaldiari dagokiona.

Familia unitateko kideetan PFEZaren aitortzea egitera behartuta ez daudenean urtean jasotako diru-sarreraren gordinen aitortzea justifikatua, eta horrekin batera, Foru Ogasunaren ziurtagiria, aitortzea hori egitera behartuta ez daudela dioena.

10. artikulua. Familia unitatearen urteko diru-sarrera gordinak dira aurkezten diren PFEZaren aitortpenetako honen guztiaren batura: zerga-oinarriaren atal orokorra, aurrezkiaren oinarri likidagarri berezia eta errenta salbuetsiak, gehi aitorten horietan sartu gabeko urteko diru-sarrera gordin justifikatuak.

11. artikulua. Familia unitatearen per capita errenta da diru-sarrera gordinen baturaren eta hura osatzen duten kideen kopuruaren arteko zatidura.

12. artikulua. Tarifak aplikatzeari dagokionez, familia unitatea da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. artikuluan definitzen dena. Hura 2008ko 80. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ekainaren 30ean.

### **KURTSOAK, IRAKASGAIK ETA PRESTAKUNTZA SAIOAK**

#### **A epigrafea.–1. mailako kurtsoak.**

1. mailan Musika Hastapena irakasgaia baizik ez da ikasten, hiru-lau urtetik sei-zazpi urte bitarteko ikasleei zuzendua. Irakasgai honek honako irakas-denbora hauek ditu:

Kurtsoak irakasgaia saio kopurua:

1. kurtsoa, 3-4 urte; Musika Hastapena; 2 saio asteko, 40 minutukoak.
2. kurtsoa, 4-5 urte; Musika Hastapena; 2 saio asteko, 45 minutukoak.
3. kurtsoa, 5-6 urte; Musika Hastapena; 2 saio asteko, 45 minutukoak.
4. kurtsoa, 6-7 urte; Musika Hastapena; 2 saio asteko, 45 minutukoak.

Taldeek gutxienez ere 6 lagun izango dituzte eta gehienez ere hamabi.

#### **B epigrafea.–2. mailako kurtsoak.**

Maila, zazpi-zortzi urtetik hamabi-hamahiru urte bitarteko ikasleei zuzendua. Haren ezaugarria da musika tresnaren praktika eta, harekin batera, musikaren prestakuntza globalizatua, musika hizkuntzaren bitartez.

Kurtsoak eta irakasgaiak:

Prestakuntza kurtsoa, 7-8 urte.	Musika Hizkuntza: 2 saio asteko, 45 minutukoak.
1. kurtsoa, 8-9 urte.	Instrumentua: 25-60 minutuko eskola astean.
2. kurtsoa, 9-10 urte.	Prestakuntza osagarria 1. eta 2. kurtsoetarako (nahitaezkoa): Abesbatza.
3. kurtsoa, 10-11 urte.	Musika Hizkuntza: 2 saio asteko, 55 minutukoak.
4. kurtsoa, 11-12 urte.	Instrumentua: astean 25-60 minutuko eskola, eta musika-tresnen taldea.
5. kurtsoa, 12-13 urte.	Prestakuntza osagarria (borondatezkoa): Abesbatza.

2. maila honetako nahitaezko irakasgaiak:

a) Musika Hizkuntza: taldean gehienez ere 12 ikasle izango dira eta gutxienez ere 6; kopurua txikiagoa baldin bada, irakas-denbora ikasle kopuruaren arabera izango da.

Adinaren kariaz Musika Hizkuntzako 1., 2., 3., 4. edo 5. kurtsoa ikasi behar duten ikasle berriek sarrera proba gainditu beharko dute.

Aurretik musika ezagupenik izan ezean, talde baterako ezarritako gutxienezkoa (6 ikasle) betetzen duen talde berria (sarbideko kurtsoa) eratzen bada baizik ez dute tokia lortuko.

b) Musika tresna, honako modalitate hauekin:

–Prestakuntza kurtsoetan, 1.ean eta 2.ean ikasleek astean 45-60 minutuko eskolak hartuko dituzte, musika-tresnaren arabera.

–Musika Hizkuntzako 3., 4. eta 5. kurtsoetan, berriz, ikasleek astean 45-60 minutuko eskolak hartuko dituzte, gehi espezialitate bakoitzari dagokion musika-tresnen taldea derrigorrezko irakasgai gisa (60 minutu astean gutxienez 6 ikaslerentzat). Musika-tresnen taldea ezarritako gutxienezkoa baino txikiagoa bada, irakas-denbora ikasle kopuruaren arabera izango da.

Baxu elektrikoa, gitarra elektrikoa eta piano espezialitateetarako, eskolak 2 ikasleko taldeetan antolatuko dira, 55 minutu astean (musika-tresnen taldeko eskolak hartzen ez dituztelako).

–Kontserbatorioko prestakuntzako 3. kurtsoan, ikasleek hartuko dute astean 30 minutuko bakarkako eskola, eta espezialitate bakoitzari dagokion musika-tresnen taldea nahitaezko irakasgai gisa (60 minutu astean). Musika-tresnen taldea ezarritako gutxienezkoa baino txikiagoa bada, irakas-denbora ikasle kopuruaren arabera izango da.

Baxu elektrikoa, gitarra elektrikoa eta piano espezialitateetarako, ikasleek hartuko dute astean 35 minutuko bakarkako eskola (musika-tresnen taldeko eskolak hartzen ez dituztelako).

–Kontserbatorioko prestakuntzako 4. eta 5. kurtsoetan, ikasleek astean 40 minutuko bakarkako eskola hartuko dute, eta espezialitate bakoitzari dagokion musika-tresnen taldea borondatezko irakasgai gisa (60 minutu astean gutxienez 6 ikaslerentzat). Musika-tresnen taldea ezarritako gutxienezkoa baino txikiagoa bada, irakas-denbora ikasle kopuruaren arabera izango da.

–Bigarren instrumentuaren espezialitatea egitea. Ikasle zaharrek baino ez dute bigarren instrumentuaren espezialitate bat egiteko aukera. Horretarako, bigarren instrumentu bat egin gogo duen ikasleak kasuan kasuko eskaera aurkeztu beharko du matrikula berritzeko dokumentazioarekin batera. Ikastetxeak hori egiteko aukera aztertuko du antolaketaren eta hutsik gelditzen diren postuen arabera, arautegi honen 7. artikuluan jaso bezala. Egin beharreko instrumentuaren kurtsoaren arabera lehenago ezarritakoak izango dira irakas-denborak.

Ikasleek eskatuta eta musika tresnaren espezialitateko irakaslea elebiduna baldin bada, banakako eskolak euskaraz nahiz gaztelaniaz eman daitezke.

Instrumentuen taldekako eskolak adin eta maila parekoen arabera antolatuko dira.

Honelakoetan baizik ez da ematen ahalko instrumentuen bakarkako eskola, astean 25 minutukoa (30 minutu astean 2. mailako 2. zikloan eta ondokoetan, baxu elektrikoa, gitarra elektrikoa eta piano espezialitateetarako):

–Ikasle bakarra badago, kurtsoan matrikulatua.

–Irakasleak halako ikasle batez, pedagogikoki arrazoiturik, haren prestakuntzari on egin nahian emandako orientabide baten kariaz, zuzendaritza taldeak ikus-onesten badu.

–Ikasle berriak, mailakatze proba egin eta Musika Hizkuntzako talde baterako plaza erdietsi ondoan, irakasleek uste badute musika-tresnetan ez dela maila bereko ikaslerik taldekako eskolak antolatzeke.

Zer eskaera dagoen, horren arabera baloratuko da musika tresna berriak sartzea, betiere gutxienez ere 4 lagun baldin badaude espezialitate berean interesaturik. Espezialitate hori ezarriko da baldin eta gutxienez ere 4 lagun interesaturik badaude eta behar den matrikula egiten badute.

c) Haurren abesbatza eta eskolania: taldekako espazio eta irakasgaia da, xedea duena ahots teknikaren ezagupen batzuk eskuratzea. Abesbatzaren bidez, taldekako interpretazioaren praktika eskuratzen du ikasleak.

–1. eta 2. kurtsoetan, irakasgaia derrigorrezkoa da (Abesbatza).

–3., 4. eta 5. kurtsoetan, irakasgaia borondatezkoa da (Eskolania).

### **C epigrafea.–3. mailako kurtsoak:**

Maila, hamahiru urtetik hemezortzi urte bitarteko ikasleei zuzendua. 2. maila ikastetxean gainditu duten ikasleak edo matrikula egin aurretik proba bat gainditu dutenak.

Taldean musika-tresnak jotzea bultzatzen da maila honetan eta helburua da ikasleak autonomia musikala izatea.

Kurtsoak eta irakasgaiak:

1. kurtsoa, 13-14 urte	
2. kurtsoa, 14-15 urte	Konboa (musika modernoko taldeak), astean ordubete.
3. kurtsoa, 15-16 urte	Instrumentua, 25-60 minutuko eskola astean.
4. kurtsoa, 16-17 urte	Espezialitateari dagokion musika-tresnen taldea (60 minutu astean).
5. kurtsoa, 17-18 urte	

3. maila honetako nahitaezko irakasgaiak:

a) Konboa, taldean gehienez ere 8 ikasle izango dira eta gutxienez ere 4; kopurua txikiagoa baldin bada, irakas-denbora ikasle kopuruaren arabera izango da.

b) Instrumentua:

–Ikasleek astean 45-60 minutuko eskolak hartuko dituzte, musika-tresnaren arabera, gehi espezialitate bakoitzari dagokion musika-tresnen taldea derrigorrezko irakasgai gisa (60 minutu astean 6 ikaslerentzat gutxienez). Musika-tresnen taldea ezarritako gutxienez baina txikiagoa bada, irakas-denbora ikasle kopuruaren arabera izango da.

Baxu elektrikoa, kantua, gitarra elektrikoa eta piano espezialitateetarako, eskolak 2 ikasleko taldeetan antolatuko dira, 55 minutu astean (musika-tresnen taldeko eskolak hartzen ez dituztelako).

c) Eskolania: taldekako espazio eta irakasgaia da, xedea duena ahots teknikaren ezagupen batzuk eskuratzea. Eskolaniaren bidez ikasleak taldekako interpretazioaren praktika eskuratzen du eta jarraipena ematen dio 2. mailako ahots taldeari.

–3. mailako kurtso guztietan irakasgaia borondatezkoa da.

–Bigarren instrumentuaren espezialitatea egitea. Ikasle zaharrek baino ez dute bigarren instrumentuaren espezialitate bat egiteko aukera. Horretarako, bigarren instrumentu bat egin gogo duen ikasleak kasuan kasuko eskaera aurkeztu beharko du matrikula berritzeko dokumentazioarekin batera. Ikastetxeak hori egiteko aukera aztertuko du antolaketaren eta hutsik gelditzen diren postuen arabera, arautegi honen 7. artikuluan jasotzen dena. Egin beharreko instrumentuaren kurtsoaren arabera lehenago ezarritakoak izango dira irakas-denborak.

Ikasleek eskatuta eta musika tresnaren espezialitateko irakaslea elebiduna baldin bada, banakako eskolak euskaraz nahiz gaztelaniaz eman daitezke.

Instrumentuen taldekako eskolak adin eta maila parekoen arabera antolatuko dira.

Honelakoetan baizik ez da ematen ahalko instrumentuen bakarkako eskola, astean 25 minutukoa (30 minutu astean baxu elektrikoa, kantua, gitarra elektrikoa eta piano espezialitateetarako):

–Ikasle bakarra badago, kurtsoan matrikulatua.

–Irakasleak halako ikasle batez, pedagogikoki arrazoiturik, haren prestakuntzari on egin nahian emandako orientabide baten kariaz, zuzendaritza taldeak ikus-onesten badu.

–Ikasle berriak, mailako proba egin eta konbo batean plaza erdietsi ondoan, irakasleek uste badute musika-tresnetan ez dela maila bereko ikaslerik taldekako eskolak antolatzeko.

Zer eskaera dagoen, horren arabera baloratuko da musika tresna berriak sartzeari, betiere gutxienez ere 4 lagun baldin badaude instrumentuen espezialitate berean interesaturik. Espezialitate hori ezarriko da baldin eta 4 lagun interesaturik badaude eta behar den matrikula egiten badute.

### ***D EPIGRAFEA.–INSTRUMENTU-PRAKTIKA TALDEKA (BANDA ETA BIG BAND).***

Haize eta perkusioko instrumentuen taldeak, xedea dutena instrumentu-praktika taldeka lantzea eta hartan atsegin hartzea.

11 urtetik goitiko ikaslearendako; musika ezagutzak izan beharko ditu aitzinetik eta horiek frogatu beharko ditu eta/edo mailako proba bat egin matrikulatu aitzin.

Irakasleak instrumentu talde horietan banatuko ditu ikasleak ikasle bakoitzaren musika mailaren arabera.

***E epigrafea.–Haur abesbatza eta Eskolania.***

Ahots taldeen irakasgaien xedea da ahots teknikaren gutxieneko ezagupen batzuk eskuratzea. Orobat, beste xede bat da beste abesbatza batzuetan kantatu duen ikasleari ahotsaren kokapena eta kanporatzeko manera berriz lantzea. Taldekako interpretazioaren praktikak aukera emango dio ikasleari pertsona bakoitzak talde baten barnean duen garrantziaz jabetzeko.

***F epigrafea.–Helduendako prestakuntza aukerak.***

a) Aldez aurreko musika ezagupenik ez duten ikasleendako:

–Gitarra-taldea: gutxienez ere 4 lagun baldin badaude eta 60 minutuko saio bat astean. Ikasle matrikulatuen kopurua ezarritako gutxienekoa baino txikiagoa bada, saio bakoitzerako irakas-denbora horren arabera izango da.

b) Aldez aurreko musika ezagupenak dituzten ikasleendako: 18 urtez gorako ikasleak, Antsoaingo Musika Eskolan 3. maila egin badute edo mailakatze proba egin ondoren, ikastegian uste badute aukera hauetako batean matrikulatzen ahal direla:

1. Instrumentua bakarrik (\*)
2. Espezialitateari dagokion musika-tresnen taldea bakarrik.
3. Konboa bakarrik.
4. Instrumentua (\*) eta bere espezialitateari dagokion musika-tresnen taldea bakarrik.
5. Instrumentua (\*) eta konboa.
6. Instrumentua (\*), bere espezialitateari dagokion musika-tresnen taldea eta konboa.

(\*) Aukera hauetarako, astean instrumentu eta/edo musika-tresnen taldeko eskola saioetarako, 2. eta 3. mailetan bezala ezartzen dira, eta ikasleek egin ahalko dituzte Musika Eskolak matrikulazio garaian eskaintzen dituen espezialitateak.

## ERANSKINA

### TARIFAK

***A epigrafea.–1. mailako kurtsoak.***

Kurtsoan izena eman edo matrikula egiteagatik (kudeaketa eta administrazio gastuak): 61,84 euro.

1., 2., 3. eta 4. kurtsoetako irakasgaien irakaskuntzagatik: 334,68 euro kurtso bakoitzeko erroldatuendako; eta 557,17 euro erroldatu gabeendako.

***B epigrafea.–2. mailako kurtsoak.***



Kurtsoan izena eman edo matrikula egiteagatik (kudeaketa eta administrazio gastuak): 61,84 euro.

Prestakuntza ikastaroetako 1. eta 2. kurtsoetako irakasgaien irakaskuntzagatik: 674,92 euro kurtso bakoitzeko Antsoainen erroldatuendako; eta 1.078,25 euro Antsoainen erroldatu gabeendako.

Musika Hizkuntzako 3., 4. eta 5. kurtsoetako irakasgaien irakaskuntzagatik: 674,92 euro kurtso bakoitzeko Antsoainen erroldatuendako; eta 1.078,25 euro Antsoainen erroldatu gabeendako.

Kontserbatoriorako prestakuntzako 3., 4. eta 5. kurtsoetako irakasgaien irakaskuntzagatik: 746,02 euro kurtso bakoitzeko Antsoainen erroldatuendako; eta 1.191,85 euro Antsoainen erroldatu gabeendako.

Instrumentuaren bigarren espezialitate baten irakaskuntzagatik: 360 euro kurtso bakoitzeko Antsoainen erroldatuendako; eta 575 euro Antsoainen erroldatu gabeendako.

***C epigrafea.–3. mailako kurtsoak.***

Kurtsoan izena eman edo matrikula egiteagatik (kudeaketa eta administrazio gastuak): 61,84 euro.

1., 2., 3., 4. eta 5. kurtsoetako irakasgaien irakaskuntzagatik: 674,92 euro kurtso bakoitzeko Antsoainen erroldatuendako; eta 1.078,25 euro Antsoainen erroldatu gabeendako.

Instrumentuaren bigarren espezialitate baten irakaskuntzagatik: 360 euro kurtso bakoitzeko Antsoainen erroldatuendako; eta 575 euro Antsoainen erroldatu gabeendako.

***D epigrafea.–Instrumentu-praktika taldeka (banda eta Big Band).***

Kurtsoan izena eman edo matrikula egiteagatik (kudeaketa eta administrazio gastuak): 61,84 euro.

Musika tresnen praktikarako kurtsoan egiten diren saio guztiengatik: Antsoainen erroldatuek 136,14 euro; eta erroldatu gabeek 202,20 euro.

***E epigrafea.–Abesbatza eta Eskolania.***

Kurtsoan izena eman edo matrikula egiteagatik (kudeaketa eta administrazio gastuak): 61,84 euro.

Kurtsoan egiten diren abesbatza saio guztiengatik: erroldatuek 136,14 euro; eta erroldatu gabeek 202,20 euro.

***F epigrafea.–Helduendako irakaskuntza.***

Kurtsoan izena eman edo matrikula egiteagatik (kudeaketa eta administrazio gastuak): 61,84 euro.

a) aukera Gitarren taldea: kurtsoan egiten diren gitarra saio guztiengatik: erroldatuek 258,07 euro; eta erroldatu gabeek 385,36 euro.

b) 1 aukera Instrumentua bakarrik: kurtsoan egiten diren instrumentuen saio guztiengatik 450,00 euro Antsoainen erroldatuek eta erroldatu gabeek 668,36 euro.

b) 2 aukera Musika-tresnen taldea bakarrik: musika-tresnen taldea kurtsoan egiten diren saio guztiengatik: Antsoainen erroldatuek 136,14 euro; eta erroldatu gabeek 202,20 euro.

b) 3 aukera Konboa bakarrik: kurtsoan egiten diren instrumentuen saio guztiengatik 255,00 euro  
Antsoainen erroldatuek eta erroldatu gabeek 378,73 euro.

b) 4 aukera Instrumentua eta musika-tresnen taldea: erroldatuek 550,00 euro; eta erroldatu gabeek  
816,00 euro.

b) 5 aukera Instrumentua eta konboa: erroldatuek 600,00 euro; eta erroldatu gabeek 891,14 euro.

b) 6 aukera Instrumentua, musika-tresnen taldea eta konboa: 674,92 euro kurtso bakoitzeko  
Antsoainen erroldatuendako; eta 1.078,25 euro Antsoainen erroldatu gabeendako.

Instrumentuen irakaskuntza duten aukeretan bigarren instrumentu bat gehitzen ahalko da, 2. eta 3.  
mailetan bezala arauturik.

#### **G epigrafea.–Kuoten murriztapenak.**

Familia unitatearen per capita errenta lanbide arteko gutxieneko soldataren %70etik %100era  
bitartean dutenek %5eko murriztapena izango dute.

Familia unitatearen per capita errenta lanbide arteko gutxieneko soldataren %50etik %70era  
bitartean dutenek %7ko murriztapena izango dute.

Familia unitatearen per capita errenta lanbide arteko gutxieneko soldataren %50etik beheiti dutenek  
%10eko murriztapena izango dute.

Murriztapen horiek hartzen diren irakaskuntza edo saioen kuotei baizik ez zaizkie aplikatuko; ez zaie  
aplikatuko izen emate edo matrikulazio kuotei.

Antsoainen erroldaturik ez daudenei ere ez zaizkie aplikatuko, ezta aurreko ikasturtean eskoletara  
%85 baino gutxiagotan etorri direnei ere.

Aurreko epigrafe guztiendako oharra: zehaztu diren kurtso edo espezialitateetarik bat baino  
gehiagotan matrikulatzen direnek kuota bakarria ordainduko dute “izen emate edo matrikulagatik”.

## **PREZIO PUBLIKOAK**

–Inskripzioa eta matrikula: 61,84 euro.

–Urteko kuota: kopuru bereko hiru zatitan ordainduko da bankuko helbideratzearen bidez, 5.  
artikuluaren zehazten diren data eta zenbatekoen arabera.

	<b>ERROLDATUAK</b>	<b>ERROLDATU GABEAK</b>
I. maila	111,56 euro/ordainketa	185,72 euro/ordainketa
II. maila	224,97 euro/ordainketa	359,42 euro/ordainketa
Kontserbatoriorako prestakuntza	248,67 euro/ordainketa	397,28 euro/ordainketa

Bigarren instrumentua	120,00 euro/ordainketa	191,67 euro/ordainketa
III. maila	224,97 euro/ordainketa	359,42 euro/ordainketa
Bigarren instrumentua	120,00 euro/ordainketa	191,67 euro/ordainketa
Helduak, aukeren arabera		
Gitarren taldea (a)		
Instrumentua (b1)	150,00 euro/ordainketa	222,79 euro/ordainketa
Musika-tresnen taldea (b2)	45,38 euro/ordainketa	67,40 euro/ordainketa
Konboa (b3)	85,00 euro/ordainketa	126,24 euro/ordainketa
Intstrumentua + Musika-tresnen taldea (b4)	183,34 euro/ordainketa	272,00 euro/ordainketa
Instrumentua + Konboa (b5)	200,00 euro/ordainketa	297,05 euro/ordainketa
Instrumentua + Musika-tresnen taldea + Konboa (b6)	224,97 euro/ordainketa	359,42 euro/ordainketa
Bigarren instrumentua	120,00 euro/ordainketa	191,67 euro/ordainketa
Musika-tresnen taldeak bakarrik		
Abesbatza eta Eskolania	45,38 euro/ordainketa	67,40 euro/ordainketa
Musika-tresnen taldeak	45,38 euro/ordainketa	67,40 euro/ordainketa